

DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, SAUren BIRJARPEN-TASA ESPEZIFIKOARI DAGOZKION HAUTAKETA-PROZESUEN DEIALDIA ETA OINARRIAK

OINARRI ESPEZIFIKOAK

Honako hauek dira deitutako hautaketa-prozesuak, sartzeko sistema eta modalitatea, plaza-kopurua eta bakoitzaren oinarri espezifikoak zehazten dituen eranskina:

Lanpostua	Prozesu mota	Sistema	Sartzeko modalitatea	Plazak guztira
Balio anitzeko gidari-konratzailea	Lehiaketa-Oposizioa	Orokorra	13	1.Eranskina
Laneko arriskuen prebentzioko teknikaria	Lehiaketa-Oposizioa	Orokorra	1	2.Eranskina
Erizaina	Lehiaketa-Oposizioa	Orokorra	1	3.Eranskina
Ordutegiak planifikatzeko arduraduna	Lehiaketa-Oposizioa	Orokorra	1	4.Eranskina
Zerbitzu eta planifikazioko administraria	Lehiaketa-Oposizioa	Orokorra	1	5.Eranskina
Lan-administrazioko teknikaria	Lehiaketa-Oposizioa	Orokorra	1	6.Eranskina

Hautaketa prozesu horietan EZ da lan poltsarik sortuko.

3. ERANSKINA:

ERIZAINAREN BIRJARPEN-TASA ESPEZIFIKOARI DAGOKION HAUTAKETA-PROZESUAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK

DEITUTAKO PLAZAK

LANPOSTUAREN IZENA	Erizaina
SAILKAPENA	DTKren Hitzarmen Kolektiboaren 16.maila
HAUTAKETA SISTEMA	Lehiaketa-oposizioa
DEITUTAKO PLAZAK	1
KONTRATAZIO MOTA	Lan kontratu mugagabea

BALDINTZA ESPEZIFIKOAK

ESKATUTAKO TITULAZIO AKADEMIKOA	- Erizaintzako unibertsitate-titulazioa, Enpresako Erizaintzako espezialitatearekin.
BESTELAKO BALDINTZA ESPEZIFIKOAK	- 3 urteko esperientzia enpresako erizaintzan.

HAUTAKETA PROZESUA

Hautaketa sistema lehiaketa-oposizioa izango da, eta gehienez ere 100 puntu lor daitezke.

Prozesuaren kalifikazioa honako baremo honen arabera emandako puntuen batura izango da:

OPOSIZIO FASEA: Gehienez 60 puntu.

Nahitaezkoa izango da, eta ez baztertzaila. Gaitasun profesionala baloratuko da eta proba bat edo batzuk egingo dira horretarako. Proba horiek galdera sortak izango dira eta hainbat erantzun aukera izango dituzte edo kasu teoriko-praktikoak ebatzi beharko dira, deitutako lanpostuaren eginkizunekin eta jarduera eremuarekin loturik betiere.

Hautagaiak probak presta ditzaten orientatzeko, lanpostuari buruzko informazioa sartu da eranskin honen azken atalean.

LEHIAKETA FASEA: Gehienez 40 puntu.

A) LAN ESPERIENTZIA: Gehienez 32 puntu.

Lan esperientziatzat hartuko da sektore publikoko edozein erakundetan –deialdia egin duen erakundea barne– antzeko espezialitateei edo talde profesionalei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuengatik izandako esperientzia, alde batera utzita esperientzia hori eragin duen harremana funtzionario edo lan kontratadun gisa izan den. Honako baremo hau aplikatuko da, tipologiaren arabera:

- a) Erakundean, deitutakoari dagokion lanpostuan, emandako zerbitzuak:
0,38 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 32 puntu.
- b) Erakundean, talde profesional bereko beste lanpostu batean, emandako zerbitzuak:
0,12 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 8 puntu.
- c) Donostiako Udalaren menpeko beste erakunde batean edo udalean bertan emandako zerbitzuak, lanpostu berdinean edo baliokidean.
0,20 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko.
- d) Donostiako Udalarena ez den sektore publikoko beste erakunde batean emandako zerbitzuak, lanpostu berdinean edo baliokidean.
0,13 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko.

c eta d ataletan lortutako puntuazioen baturagatik gehienez ere 24 puntu lortu ahal izango dira.

Zenbaketa egiteko, esperientzia mota bakoitzean lan egindako aldiak batuko dira, eta, esperientzia batu ondoren, ez dira kontuan hartuko hilabetetik beherako zatiak. Ondorio horietarako, hilabetetzat hartuko da 30 eguneko multzoa.

Erakundean bertan emandako zerbitzuak alegatu egin behar dira eta ofizioz zenbatuko dira.

Donostiako Udalaren menpeko gainerako erakundeetan edo Udalean bertan, edo sektore publikoko beste erakunde batzuetan emandako zerbitzuak alegatu egingo dira eta ziurtagiri baten bidez egiaztatu beharko dira. Dokumentu horretan, erakunde bakoitzak erabakitzen duen ereduari, horretarako ezarritako prozeduran eskatzen den informazioa xehe adierazi beharko da, eta, besteak beste, lanpostuaren izena, kategoria, lan egindako aldiak, lanaldia eta eginkizunen deskribapena agertuko dira.

Lan esperientziari dagokionez, honako hauek baloratuko dira: hautagaiak senideak zaintzeko edo genero indarkeriagatik eszedentzian egon diren denbora, amatasuna eta aitatasuna babestea helburu duten lanaldi murrizketei edo baimenei egotz dakiekeen denbora, edo bizitza pertsonala, familia eta lana modu arduratsuan uztartzea helburu duen denbora, bai eta langile publikoek genero indarkeriagatik baimenak baliatu dituzten denbora ere.

B) PRESTAKUNTZA ETA BESTELAKO EZAGUTZAK: gehienez 8 puntu.

B.1) Prestakuntza akademiko ofiziala izatea: Gehienez 4 puntu.

- 4 puntu emango zaizkio lortu nahi den lanposturako eskatzen den maila bereko edo handiagoko titulazio akademiko ofiziala izateari. Maila berekoa bada, eskakizun gisa egiaztatutakoaz bestelako titulazioa izan beharko du; izan ere, ez da meritua gisa kontuan hartuko betekizuna egiaztatze kontuan hartzen den titulua.
- Titulu propioak izatea baloratuko da, gehienez 4 puntu, baremo honen arabera:
 - 200 ordu baino gehiago eta 250 ordu arte irauten dutenak: 2 puntu titulu bakoitzeko.
 - 250 ordu baino gehiago eta 300 ordu arte: 3 puntu titulu bakoitzeko.
 - 300 ordutik gorako iraupena: 4 puntu titulu bakoitzeko.

B.2) Bestelako prestakuntza ikastaroak. Gehienez 4 puntu

Gehienez ere 4 puntu emango dira deitutako lanpostuaren xedearekin zerikusia duten bestelako prestakuntza ikastaroengatik, 1 puntu 5 orduko prestakuntza bakoitzeko.

B.3) Hizkuntzak. ingelesa, frantsesa eta alemana. Gehienez 2 puntu.

Gehienez ere 2 puntu emango dira ingelesa, frantsesa eta/edo alemana jakiteagatik, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko mailen arabera.

Hizkuntza horietako bakoitzaren ezagutza egiaztatzeagatik honako puntuazioa emango da:

- B1 maila: 1 puntu
- B2 maila edo handiagoa: 2 puntu

Hizkuntza bakoitzerako, egiaztatu den maila gorena bakarrik baloratuko da.

B.4) Informatikako ezagutzak. Gehienez 4 puntu.

IT Txartela ziurtagirien sistemaren bidez egiaztatutako ezagutza informatikoak baloratuko dira, eta gehienez ere 4 puntu lortu ahal izango dira.

Honako ziurtagiri hauek baloratuko dira:

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 edo geroagokoa.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 edo geroagokoa.
- Internet.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 edo geroagokoa.
- Microsoft Outlook XP/2003/2010 edo geroagokoa.
- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 edo geroagokoa.

Ziurtagiri horiek honako baremo honen arabera baloratuko dira:

- Oinarrizko mailako ziurtagiri bakoitzeko: 1 puntu.
- Maila aurreratuko ziurtagiri bakoitzeko: 2 puntu.
- Maila bakarreko ziurtagiri bakoitzeko: 2 puntu.

Modulu beraren oinarrizko maila eta maila aurreratua egiaztatzen badira, maila aurreratua bakarrik baloratuko da.

Geroagoko bertsio bateko aplikazio baten ziurtagiriek aurreko bertsioak baliogabetuko dituzte, salbu eta aurreko bertsioan hautagaiak maila aurreratua lortu badu. Kasu horretan, azken hori baloratuko da.

B.5) Euskararen ezagutza. Gehienez 4 puntu.

Honako puntuazio hau emango da euskara jakitea baldintza ez denean:

- B1 maila: 2 puntu
- B2 maila: 4 puntu

Hautaketa prozesuaren barruan, euskararen ezagutza baloratzeko borondatezko probak egingo dira.

BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK

Berdinketa gertatuz gero, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan, hurrenez hurren, ordena zehazteko:

- Erakundearen, deitutako lanpostuaren, lehenago hasitako hautagaiaren alde (antzinatasuna lanpostuan).
- Erakundearen, deitutako lanpostuaren, zerbitzu denbora gehien eman duenaren alde. Ez da kontuan hartuko puntuazio muga, eta egunka zenbatuko da.
- Deitutako lanpostuaren ordezkari txikiena duen generoaren alde.
- Zozketa publikoa.

LAN POLTSA

Hautaketa prozesu horietan ez da lan poltsarik sortuko.

LANPOSTUARI BURUZKO INFORMAZIOA

LANPOSTUAREN EGINKIZUNA:

Langileei laguntza medikoa ematea, medikuaren jarraibideei jarraituz.

JARDUERA EREMU ESPEZIFIKOAK:

Deitutako lanpostuari esleitutako eginkizun nagusiak, Donostiako Tranbia Konpainiaren Giza Baliabideen Ebaluazioan jasotakoak, honako hauek dira:

Zereginak:

- Gaixotasun profesionalak aztertzea, identifikatzea eta komunikatzea.
- Lantokian osasuna sustatzeko programak bultzatzea, OSNrekin koordinatuta.
- Langileen osasunaren banakako eta taldeko zaintza planifikatzea, programatzea eta etengabe gauzatzea, jasaten dituzten arriskuen arabera.
- Langileei lehen laguntzak eta larrialdiko arreta ematea.
- Prebentzio Zerbitzuaren jarduera ez-sanitarioetan parte hartzea.
- OSNrekin eta osasun-arloko agintariekin lankidetzan aritzea, zaintza epidemiologikoko lanetan eta osasun-arloan eskumena duten administrazio publikoek antolatutako kanpainen.
- Zerbitzu medikoari dagozkion administrazio-lanak egingo ditu (materiala erosi, hornitzaileekiko harremana...)
- Lanpostuaren kualifikazioarekin bat datozen eta aurrekoez gain agintzen zaizkion beste lan batzuk egitea.

Ardurak:

- Zerbitzu medikora joaten diren langileei laguntza medikoa ematea, medikuak emandako jarraibideak betez.
- Material mediko eta farmazeutikoa kudeatzea.